OIARTZUNGO UDALA

**Espedientearen kodea:** 2021ZZ020002
**Espedientearen gaia**: 2022an Oiartzunen aurreikusitako edo ohiko kultur ekitaldietarako dirulaguntzak. Munigex: 2021DI01010002
**Titularra**: OIARTZUNGO UDALA

---

# EBAZPENAREN ZIURTAGIRIA

**Mª Victoria Joaristi Olariaga, Oiartzungo Udalaren idazkari naizenak:**

**ZIURTATZEN DUT**: Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak, 2022/03/30n, beste batzuen artean ondorengo akordioa hartu zuela:

**"2022AN OIARTZUNEN AURREIKUSITAKO EDO OHIKO KULTUR EKITALDIETARAKO DIRULAGUNTZEN BANAKETA ONARTZEA**

2022an Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzeko diru laguntzak banatzeko oinarriak 2021ko abenduaren 22an onartu zituen Udalbatzak. Hauen xedea, 2022an zehar, Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzen dituzten herri eragileei, norgehiagoka prozeduraren bidez, diru laguntzak banatzeko Oiartzungo Udalaren diru-laguntzen oinarri arautzaileak ezartzea da eta horien baitan ireki zen eskaerak aurkezteko epea, urtarrilaren 1etik 31a arte.

Epe horretan eragileei aurkeztutako eskaerak aztertuta Kultura Saileko teknikariak puntuatu egin ditu eta lortutako puntuazioa eta eskatutako laguntza kopurua kontutan hartuta, eskatzaileen artean dirulaguntzak banatzeko proposamena egin du, gaiari buruzko txostenean. Aipatu txostena aintzat hartuta, Kultura Batzordeak 2022ko martxoaren 18an aldeko diktamena eman dio proposamenari.

Guzti hau kontutan hartuta, honako ebazpena hartu du Udalbatzak:

1.- 2022an Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak herriko elkarteei banatzeko eta ordaintzeko proposamena, onartzea, honako xehetasunekin:

| EKINTZA | PUNTUAK GUZTIRA | ESKATUTA LAGUNTZA | LAGUNTZA |
|---|---|---|---|
| RAKETISTAK | 45 | 600,00 € | 600,00 € |
| MUNANIER: GARAGARDO | 88 | 3.000,00 € | 3.000,00 € |
| ORGANOZALEAK | 62 | 3.000,00 € | 2.984,53 € |
| MARI DOMINGI, OLENTZERO LAG. | 68 | 3.538,00 € | 3.273,36 € |
| BERTSO ESKOLA: ERRE | 56 | 2.238,00 € | 2.238,00 € |
| BERTSO ESKOLA: HAU EZ DA KAS. | 55 | 3.218,00 € | 2.647,57 € |
| BIZARDIA: KANTUGILTZA | 73 | 4.550,00 € | 3.514,05 € |
| AIA | 55 | 2.350,00 € | 2.350,00 € |
| IBARGAIN MUSIKA ESKOLA | 68 | 5.350,00 € | 3.273,36 € |
| SAGARDO EGUNA | 63 | 3.000,00 € | 3.000,00 € |
| OIHARTZUN FILOSOFIKOA | 64 | 1.700,00 € | 1.700,00 € |
| OIDULTZ | 75 | 3.000,00 € | 3.000,00 € |
| AZMARRIN | 36 | 1.950,00 € | 1.732,95 € |
| METROKOADROKA: GEZI BELTZAK | 40 | 1.200,00 € | 1.200,00 € |

ESKUaef2bc02-457f-4e19-94b5-4b5525416060d

| | | | |
|---|---|---|---|
| ELIZALDE: BERTSO BAZKARIA | 65 | 1.000,00 € | 1.000,00 € |
| METROKOADROKA: 21 AULKI | 47 | 2.400,00 € | 2.262,47 € |
| UGALDETXO KT: PAILAZOAK | 98 | 531,00 € | 531,00 € |
| 1545 LITERATURA | 42 | 4.200,00 € | 2.021,78 € |
| OLARRI: DANTZA JAIALDIA | 60 | 4.350,00 € | 2.888,26 € |
| Guztira | 1160 | 51.175,00 € | 43.217,33 € |

2.- Dirulaguntzak hauek ordaintzeko, guztira, 43.250 €ko gastu-onarpena egitea, Oiartzungo Udlaren 2022 urteko aurrekontuko 1 0801.481.334.00.01.2022 zenbakidun partidaren kontura.

3.- Oinarriek ezarri bezala, txostenean adierazitako lehen ordainketa orain egitea (%80ari dagokiona, hau da, 34.600 €) eta gainontzekoa (%20ari dagokiona, hau da, 8.650 €) interesatuek gastuak justifikatu ondoren ordaintzea."

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikuluaren arabera, Oiartzunen, sinaduraren egunean.



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUaef2bc02-457f-4e19-94b5-4b552541606d**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310***

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2021ZZ020002-Ebazpena pleno/Ebazpena pleno (OIARTZUNGO UDALA) |
|---|---|

Data / Fecha: 2022/04/04 08:28:33
Sinatzailea 1 / Firmante 1: MARIA VICTORIA JOARISTI OLARIAGA - 15966446F
IDAZKARIA

Data / Fecha: 2022/04/04 10:55:30
Sinatzailea 2 / Firmante 2: JEXUX LEONET ELIZEGI - 72441887Y
Alkatea